

# Martxoaren 15eko 5/2013 Errege Dekretua.

## Martxoaren 16ko BOE

Martxoaren 15ean, Madrileko gobernuak, hainbat ostiral mingarritan bezala, "adineko langileen lan bizitzaren luzapena bultzatzeko eta zahartze aktiboa sustatzeko" neurrien dekretua onartu zuen.

Gogoratu behar da ezarrita dagoela erretiratzeko adina luzatuko dela pixkanaka, oraingo 65 urtetatik 67 arte, hurrengo abiaduran:

2013tik 2018ra: urtero hilabete bat

2019tik 2027ra: urtero bi hilabete.

Dekretuak neurri batzuk dauzka hainbat arlotan

### **Aurretiko Erretiratzea:**

Aurretiko erretiratzeko sarbidearen adina igotzen da, bete behar den gutxienezko kotizazio epea luzatzen da eta pentsioaren koefiziente erreduktoreak igotzen dira, orokorrean.

**A) Borondatezkoa ez denean (langileari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik, kaleratze kolektiboa, arrazoi ekonomikoengatik kaleratze objektiboa, enpresariaren heriotza edo erretiratzea, eta abar) adina pixkanaka igoko da oraingo 61 urte eta hilabete batetik 2027ko 63 urtetara. Hurrengo baldintzak bete beharko dira:**

- Ezin da 4 urteko diferentzia baino gehiago egon betetako adina eta momentuan legeak markatzen dituen urteen artean (2027an 67 urte, edo 65 baldin badaude 38 urte eta 6 hilabete kotizatuta).

- Langabeziako bulegoan izena emanda egon behar izan da erretiratzeko eskaeraren data baino 6 hilabete lehenago, gutxienez.

- Gutxienezko kotizazio epea 33 urtekoa da.

- Legokion kalte-ordaina jasota izan edo jasotzeko eskaera judiziala aurkeztuta izan, baita lan kontratuaren amaitzeko erabakiaren kontrako eskaera eginda izan (kaleratze kasuetan). Hau zeragatik egiten da: Benetan adostutako kontratu amaiera dena, amaiera ez boluntario bezala (pentsio altuagoa jasotzeko) ez pasatzeko.

Emakumezko langileen kasuan, generoko biolentziagatik lan harremanaren amaierak aurretiko erretiratze mota honetara emango du sarbidea.

Erretiratze partziala hartzen dutenei pentsioa kalkulatzeko koefiziente erreduktoreak igotzen zaizkie:

- Kotizazio epea 38 urte eta sei hilabete artekoa bada, %1,875 hiruhilabetero.

- Kotizazio epea 41 urte eta sei hilabete artekoa bada, %1,750 hiruhilabetero.

- Kotizazio epea 44 urte eta sei hilabete artekoa bada, %1,625 hiruhilabetero.

- Kotizazio epea luzeagoa bada, %1,500 hiruhilabetero.

**B) Borondatezko aurretiko erretiratzearen kasuan**, sartzeko adina pixkanaka igoko da oraingo 63 urte eta hilabete batetik 2027ko 65 urte arte. Bete behar:

- Gehienez bi urtetako diferentzia egotea betetako adinaren eta legeak markatzen duenaren artean. (67 urte, edo 65 baldin badaude 38 urte eta 6 hilabete kotizatuta).

- Gutxienezko kotizazio epea 35 urtekoa izango da.

Koefiziente erreduktore hauek ezarriko dira:

- 38 urte eta sei hilabete kotizatuekin, %2 hiruhilabetero.

- 41 urte eta sei hilabete kotizatuekin, %1,875 hiruhilabetero.

- 44 urte eta sei hilabete kotizatuekin, %1,750 hiruhilabetero.

- Kotizatutako epea luzeagoa bada, %1,625 hiruhilabetero.

*Aurretiko erretiratze kasu guztietan geratzen den pentsioa ezin da gehienezkoa ken urteko %2 baina handiagoa izan (hau garrantzitsua da ertainetako irakasleentzat, haien "haber regulador" deritzona gehienezko pentsioa baino handiagoa delako).*

## Zatikako erretiroa

Orain dela gutxi arte erretiratzeko adinaren hurbiltzen zenean posible izan da enpresarekin erretiratze partziala adostea, soldata eta jardunaldia proportzio berean murrizten eta egiten ez den jardunaldiaren proportzioan pentsioa jasotzen. Enpresak erreleboko kontratua egin behar dio langile bati, gutxienez partzialki erretiratzeko denak egiten ez duen jardunaldirako. Plantilak gaztetzen ziren eta erretiratzeko sarbidea errazten zen.

**Aldibereko errelebo eta erretiratze partzialeko kontratua desagertuko den modalitatea da.** Dekretuak esaten du 2013tik aurrera erretiratze partziala hartzen dutenek 6 urteko antzinatasuna izan behar dutela enpresan eta erretiratze arrunterako adina baino 4 urte gutxiago gehienez:

Urtea	Erretiratzean gutxienezko adina eta kotizatzeko epea	Gutxienezko adina, 33 urte kotizatuta	
2013	61 y 1 hil.	33 urte y 3 hil.	61 y 2 hil.
2014	61 y 2 hil.	33 urte y 6 hil.	61 y 4 hil.
2015	61 y 3 hil.	33 urte y 9 hil.	61 y 6 hil.
2016	61 y 4 hil.	34 urte	61 y 8 hil.
2017	61 y 5 hil.	34 urte y 3 hil.	61 y 10 hil.
2018	61 y 6 hil.	34 urte y 6 hil.	62 urte
2019	61 y 8 hil.	34 urte y 9 hil.	62 urte y 4 hil.
2020	61 y 10 hil.	35 urte	62 urte y 8 hil..
2021	62 urte	35 urte y 3 hil.	63 urte
2022	62 urte y 2 hil..	35 urte y 6 hil.	63 urte y 4 hil.
2023	62 urte y 4 hil.	35 urte y 9 hil.	63 urte y 8 hil.
2024	62 urte y 6 hil.	36 urte	64 urte
2025	62 urte y 8 hil.	36 urte y 3 hil.	64 urte y 4 hil.
2026	62 urte y 10 hil.	36 urte y 3 hil.	64 urte y 8 hil.
2027 eta geroago	63 urte	36 urte y 6 hil.	65 urte

Gutxi balitz, erretiratze partzialaren lan jardunaldiaren murrizketa %25 eta %50 artean egongo da (erreforma baino lehen %75 zen). Salbuespen moduan %75eko murrizketa gerta daiteke, errelebestari jardunaldi osoko kontratu finkoa egiten badiote.

Langilearen gutxienezko kotizazio epea 33 urte arte igotzen da (25 urte %33 edo gehiagoko elbarritasuna duten langileen kasuan).

Arau iragaitzazkoei esker, posible da martxoaren 31 baino lehenago erretiratze partzialaren plan berria enpresarekin adostea eta sinatzea, eta horrela posible da 61 urterekin eta %75arekin 2019 arte erretiratzea. Hitzarmen berri honek 2019 baino lehenago 61 urte betetzen dituzten pertsona guztiak sar ditzake. Gizarte-segurantzako Erakunde Nazionalaren herrialdeko zuzendaritzan erregistratu behar da apirilaren 15 baino lehenago, dagokien pertsonen identifikatzeko datuekin eta idazki bat hitzarmenaren denbora esparruarekin,

aplikatzeko lurralde esparruarekin, hitzarmenean bertan ez baleude sartuta, eta hitzarmenak eragiten dion enpresaren kotizazio kontu kodeak.

### **Lana eta pentsioaren bateragarritasuna.**

Onartutako Errege Dekretuak pentsionista aktiboa izatea ahalbideratzen du. Lan egiteko aukera ematen du, autonomo bezala edo kontratupean, jardunaldi osoa edo partzialarekin, pentsioaren %50 jasotzen, kotizazio sozialaren zati ederra ez da ordaintzen eta "elkartasun"-eko kotizazioa sartzen da: %8 (enpresak %6 eta langileak %2) gehi kontingentzia profesionalei dagokiena.

Laneko epea amaitzean, pentsio osoa berrezartzen da, pentsionistak bere izaera inoiz galdu barik. Modalidade honetan sartzeko erretiratzeko adin legala eta oinarri erregulatzailaren %100 izan behar.

Gainera, funtzionario publikoei lana eta pentsioa bateratzeko antzeko baldintzak ezartzen dira, beti enpresa pribatu batean bada.

### **55 urte baino gehiagokoentzako dirulaguntza**

Langile hauek langabeziako prestazioa agortu eta gero jasotzen zen dirulaguntzarako sarbidea oztopatu du Gobernuak. Horren arabera hileroko 426 euroko diru sarrera bermatzen zen 65 urte bete arte eta hau baino garrantzitsua, erretiratzeko kotizazioa egiten zen ere.

Hemendik aurrera gobernuak PREPARA planarekin ezarri zuen filosofia bera aplikatuko du eta diru sarrera hau kobratzeko ez da kontutan hartuko, orain arte bezala, onuradunaren errenta, unitate familiarrarena baizik. Horrela, familiako errenta (26 urte baino gutxiagokoak barne) zati kideen kopurua ezin da lanbide arteko gutxienezko soldataren (2013an, 645,30 euro) %75, aparteko ordainsariei dagokiena kenduta. Honen ondorioz, ezkontidea edo familiako beste kide batek hileroko 970 euro baino gehiago jasotzen badu, langabetuak ez du prestazio hau jasoko. Gobernu beraren datuen arabera, adin honen langabetuen %20k, gutxienez, ez dute beteko apiriletik aurrera prestazioa kobratzeko eskatuko diren baldintzak. Larriena ez da prestazioaren galera bera, pentsioa kalkulatzekoan urte horien kotizazioa galtzea baizik.

## **50 urte baino gehiagoko langileei eragiten dietn kaleratze kolektiboak**

100 langile baino gehiagoko enpresetako kaleratze kolektiboetan, 50 urte baino gehiagoko kaleratutako langileen portzentua plantila osoan duten proportzioa baino handiagoa bada, langile hauen prestazioak finantzatzeko dirua ipini beharko dute enpresak edo enpresa taldeak hurrengo baldintzak betetzen baditu:

- Prozedura hasi baino aurreko bi urteetan onurak izan dituztela.
- Prozedura hasi eta hurrengo lau urteetan bi urte jarraitutan onurak badauzka.

Neurri hau apirilaren 15ean indarrean ipiniko da, IBERIA-ko ERE kostu barik gauzatzeko denbora emateko (3000 kaleratze, gehienak 55 urte baino gehiagokoak).

## **Hitzarmen Kolektiboen Kontsultarako Batzorde Nazionala**

Errege-Dekretu hau indarrean sartu eta hurrengo hiru hilabeteetan Komunitate Autonomoek ez badute hirualdeko organo bat osatu, Hitzarmen Kolektiboen Kontsultarako Batzorde Nazionalaren parekoa, edo Enplegu eta Gizarte-Segurantzako Ministerioarekin elkarlaneko Komenio bat izenpetu Batzorde Nazionalaren jarduera adosten dagokion Komunitate Autonomoan, Batzorde Nazionalak ebatzi ahalko ditu Komunitate Autonomi bakar batean kokatutako enpresen hitzarmenak ez aplikatzeko eskaerak.

Orain arte Batzorde Nazionalak Komunitate Autonomo bat baino gehiagotan ezarrita zeuden enpresetan hitzarmena ez aplikatzeko eskaeretan erabaki ahal zuen. Patronalak presionatzen aritu da Eusko Jaurlaritzak edo Nafarroako Gobernuak Batzorde analogo bat sor dezaten Komunitate Autonomo bakar batean dauden enpresek hitzarmenak ez aplikatzeko derrigorrezko arbitrajea exijitzeko ahalmena izateko.

## **STEE-EILASen balorazioa:**

### **Pentsio-erreforma berria eskubide gehiago desegiteko**

PPren gobernuak, berriro ere, Legebiltzarrari izkin egin eta, Errege-dekretuaren bidea erabiliz, murrizketen beteriko pentsioen erreforma berria inposatu du era azkarrean eta inolako tramite parlamentariorik gabe.

Sistemaren bideragarritasuna izan da baliatu duten aitzakia populazio osoari erasotzeko eskubideak murrizten eta pobrezia eramaten duten eta giza ezberdintasunak areagotzen dituzten neurri berriekin. Oraingoan, erretiro hartzeko eskubideak jaso du murrizketa hori bere atal ezberdinetan, eta pentsioen sistema publikora bideratuta zeuden mila milioika euro desbideratuak izango dira deficit sakratua kitatzeko ahaleginean.

Antza, ez zen nahikoa aurreko PSOEn gobernuak CCOO eta UGT sindikatuarekin sinatutako Pentsio-erreforma joan den urtarrilaren 1ean abian jartzea, erretiroa hartzeko adina luzatzen hasteko. Estutu egin behar zen gehiago, zigortu alde aurretiko erretiroa hartzeko era guztiak eta errelebo-kontratu bidez erretiro partziala lortzeko baldintzak. Horretarako, eskuratu beharreko diru kopurua murriztu egin dute, erretirorako aukera bi urtez atzeratu, enpresen ordainak handitu, beharreko kotizazio-urteak gehitu... eskubidea bera ezinezko bihurtu arte, bizimodu duina izateko behar den pentsioa eskuratzeko bizitza laborala luzatzea ezinbestekoa izango delako. Eta hau guztia, enpresek plantilen gartzetzea behar dutenean eta kalean milioika pertsona lanpostu baten bila etsita dabiltzanean, atzerrira joaten edo familiarekiko mendekotasunean egoten behartuta dauden unean.

Hau guztia dela eta, STEE-EILAS-ek, berriro ere, langileekiko adierazi duten errespetu falta salatu behar du. Erretiro sistemaren pribatizatzea, hiritar askoren pobretzea eta lan baldintzak okertzea ahalbideratzen dituzten politika neoliberalekin amaitzea eskatzen dugu. Ildo horretatik, Nafarroako eta EAeko gobernuak, Errege Dekretuko neurri ezberdinek sor ditzaketen ondorioak saihesteko neurri zehatzak exijitzen dizkiegu, gizartearen gehiengo batek inolako zalantzarik gabe eskatzen duena delako.

Aldi berean, guretzat hau izan daiteke une egokia Euskal Herriko instituzio publikoek, era eraginkor batean, erretiro sistema propiorako eskubidea aldarrika dezaten, lorpen horretara hurbilduko gaituzten ekimenak bultzatuz.